

Redmi Note 13 Pro 5G

Segurtasunari buruzko informazioa



Erabiltzailearen eskuliburua ikusteko, eskaneatu QR kodea.

Eskerrik asko Redmi aukeratzeagatik

Luze sakatu pizteko botoia, gailua pizteko.

Jarraitu pantailan agertzen diren argibideei gailua konfiguratzeko.

Informazio gehiago lortzeko, bisitatu gure webgune ofiziala: www.mi.com/global/service/userguide

SIMari buruz:

Ez sartu SIM txarte| ez-estandarrik SIM txartelentzako erretenean. Kalteak eragin ditzake SIM txartelentzako erretenean.

ABISUA: Ez desmuntatu gailu hau.

WEEE



Produktu hau modu seguruan botatzeko, neurri bereziak hartu behar dira. Ikur honek adierazten du, EBn, produktua ez dela bota behar etxeko ohiko hondakinekin. Hondakinak kontrolik gabe botatzeagatik ingurumenari eta gizakien osasunari kalterik ez eragiteko, eta baliabide materialen berrerabilera jasangarria egiteko, arduraz birziklatu.

Gailua modu seguruan ezabatzeko, erabili bilketa- eta itzultze-sistemak edo jarri harremanetan produktua erosi zenion saltzailearekin.

KONTUZ

BATERIA DESEGOKI BATEKIN ORDEZTUZ GERO, LEHERTZEKO ARRISKUA DAGO. ERABILITAKO BATERIAK BOTATZEKO, HARTU AINTZAT JARRAIBIDEAK.



Entzumenari kalterik ez egiteko, ez erabili gailua bolumen oso altuan denbora luzez.

Segurtasun-informazioa eta neurri osagarriak esteka honetan ditzuzu:

www.mi.com/en/certification

Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua

Irakurri segurtasunari buruzko informazio guztia gailua erabiltzen hasi aurretik.

- Baimendu gabeko kableak, egokigailuak edo bateriak erabiliz gero, leherketak edo deskarga elektrikoak gerta daitezke, eta gailuari kalteak eragin edo hura arriskuan jarri.
- Gailu honen funtzionamendu-tenperatura 0 °C eta 40 °C bitartekoa da. Aipatutako tenperatura-tarte horretatik gora edo behera erabiltzen baduzu gailua, kalteak eragin diezazkiokezu.
- Zure gailuak bateria bat baldin badu, ez saiatu hura ordeztzen, kalterik ez eragiteko bateriari edo gailuari berari.
- Gailua kargatzeko, gailuarekin emandako edo baimendutako kablea eta egokigailua bakarrik erabili. Gailuarekin bateragarriak diren osagarri baimenduak bakarrik erabili.
- Kargatzen amaitu ondoren, deskonektatu egokigailua, bai gailutik eta bai korrante-hargunetik ere. Ez duki gailua kargatzen 12 ordu baino gehiago.
- Birziklatu bateria, eta, botatzekotan, ez bota etxeko ohiko zaborrarekin batera. Bateria behar bezala erabiltzen ez bada, sute bat edo leherketa bat gerta daiteke. Gailua, bateria eta osagaiak botatzeko edo birziklatzeko, jarraitu tokiko araudiei.
- Ez desmuntatu, ez kolpatu, ez zanpatu eta ez erre bateria. Bateria deformatuta edo kaltetuta badago, utzi berehala erabiltzeari.
 - Ez eragin zirkuitulaburrik baterian, ez dadin gehiegi berotu eta ez dezan erredurarik edo beste zauririk eragin.
 - Ez jarri bateria tenperatura altuko lekuetan.
 - Gehiegi berotuz gero, leherketaren bat gerta daiteke.
 - Ez desmuntatu, ez kolpatu eta ez zanpatu bateria, ez dadin jariatu bateriako likidoa, eta ez dadin gehiegi berotu edo lehortu.
 - Ez erre bateria, ez dadin gertatu suterik eta leherketarik.
- Erabiltzaileak ez du bateria kendu edo aldatu behar. Konponketa-zentro baimenduak bakarrik desmuntatu edo konpon dezake.
- Ez busti gailua.
- Ez saiatu gailua zure kontura konpontzen. Gailuaren piezetakoren bat ez baldin badabil behar bezala, jarri harremanetan Mi-ren bezeroarentzako arreta-zerbitzuarekin, edo eraman gailua konponketa-zentro baimendu batera.
- Beste gailu batzuk konektatzeko, jarraitu haien eskuliburuetak jarraibideei. Ez konektatu gailu honekin bateragarriak ez diren gailuak.
- CA/CC egokigailuek korrante-hartunetik hurbil egon behar dute, eta erraz lirsteko modukoak izan.

Segurtasun-adierazpena

Zure telefonoaren sistema eragilea eguneratzeko, erabili sistema eguneratzeko funtzioa, edo zoaz gure saltoki baimendu batera, mesedez. Softwarea eguneratzeko beste bideren bat erabiltzen baduzu, besteak beste, gailua kaltetu egin daiteke, datuak gal ditzakezu eta segurtasun-arazoak izan.

Erantzukizunen deskargua

Erabiltzailearen eskuliburu hau Xiaomik edo haren tokiko filialak argitaratu du. Xiaomik beharrezkoak diren hobekuntzak eta aldaketak egin ditzake Erabiltzailearen eskuliburu honetan, edozein unetan eta aurrez jakinarazi gabe, arrazoi hauengatik: akats tipografikoak, informazioaren zehaztasunik eza edo programen eta ekipoen hobekuntzak. Hala ere, aldaketa horiek eskuliburu honen hurrengo onlineko edizioetan sartuko dira (ikus xehetasun guztiak helbide honetan: www.mi.com/global/service/userguide). Irudi guztiak erreferentzia gisa erabiltzeko dira; baliteke esku artean duzun telefonoaren berdinak ez izatea.

XIAOMIREN BERME-OHARRA (Euskaraz)

BERME HONEK BERARIAZKO ESKUBIDE BATZUK EMATEN DIZKIZU, ETA BALITEKE ZURE HERRIALDE, PROBINTZIA EDO ESTATUKO LEGEETAN JASOTA DAUDEN BESTE ESKUBIDE BATZUK ERE IZATEA. IZAN ERE, HERRIALDE, PROBINTZIA EDO ESTATU BATZUETAN, KONTSUMITZAILEAREN LEGEEK GUTXIENEN BERMEALDI BAT EZAR DEZAKETE. LEGEAK ONARTZEN DUENA IZAN EZIK, XIAOMIK EZ DITU BATZERTZEN, MUGATZEN EDO ETETEN ZUK IZAN DITZAKEZUN BESTE ESKUBIDE BATZUK. ZURE ESKUBIDE GUZTIAK ULERTZEKO, KONTSULTATU ZURE HERRIALDE, PROBINTZIA EDO ESTATUKO LEGEAK.

Kontratu-berme hau hasieran emandako Xiaomi produktuaren (aurrerantzean, "Produktua") hardware-osagaiei soilik aplikatzen zaie, eta ez zaie aplikatzen Xiaomiren edo hirugarrenen jabetzako softwareei edo beste ekipo batzuei, nahiz eta azken erabiltzaileari lizentzia-hitzarmen bat edo aparteko berme-adierazpenak eskaini edo aplikatu.

PRODUKTUAREN BERME MUGATUA

Xiaomik lehen erosleari bermatzen dio Xiaomi produktuak ez duela inolako akats materialik ez eskulanaren akatsik berme-aldian normal erabiltzen duenean. Legeak kontraktorik esaten ez badu, bermea urtebetekoa (1) izango da unitate nagusirako, sei (6) hilabetekoa batera erauzgarriko eta kargagailurako, urtebetekoa (1) batera finkorako eta hiru (3) hilabetekoa entzungailuetarako, hala badagokio, erosketa-egunetik hasita.

Hala ere, Xiaomik ez du salbuesten, mugatzen edo bertan behera uzten legedia aplikagarriak ezarritako legezko gutxieneko berme-aldia.

Xiaomik ez du bermatzen produktuaren erabilera jarraitua izatea, ez eta akatsik ez izatea ere.

KONPENTSASIO-NEURRIAK

Hardware-akats bat aurkitzen bada eta Xiaomik baliozko erreklamazio bat jasotzen badu berme-aldiaren barruan, Xiaomik (1) kargurik gabe konponduko du produktua ordezkio berriak edo berregokituak erabiliz, (2) produktu horren ordezkio berria edo berregokitua jarriko du, edo (3) produktuaren zenbatekoa bueltatuko du, bidalketa-gastuak kenduta.

Akatsen bat izanez gero, legeak baimentzen duen gehieneko neurrian, baliabide hauek ditu.

Bidalketa- eta manipulazio-karguak aplika daitezke, legedia aplikagarriak debekatzen duen kasuetan izan ezik. Ordezko hardwarearen edozein produktu aseguratuta egongo da jatorrizko bermearen gainerako aldiaren edo hogeita hamar (30) egunez, bietatik luzeena dena, edo haren jurisdikzioan aplika daitekeen beste edozein epetarako.

BERME-ZERBITZUA ESKURATZEA

Legedia aplikagarriaren arabera, erosketaren egiaztagiria eta produktuaren IMEIa duen berme-txartela aurkezteko eska diezaioke Xiaomik bezeroari. Zure ardura da produktuan biltegituratu edo gorde duzun edozein informazio, software edo materialen segurtasun-kopia egitea. Litekeena da datu, software edo bestelako material horiek galdu edo formateatzea zerbitzuan zehar; Xiaomi ez da kalte edo galeria horien erantzule izango.

SALBUESPENAK ETA MUGAK

Xiaomik kontraktorik hitzartzen ez badu, berme mugatu hau Xiaomi edo Xiaomirentzat fabrikatutako produktuei bakarrik aplikatzen zaie, zeinak marka erregistratua, izen komertziala edo "Xiaomi" edo "Mi" logotipoa erabiliz identifikatu baitaitezke.

Berme mugatua ez da aplikatuko inguruabar hauetan: (a) hondamendi naturalek eragindako kalteak, hala nola tximistek, tornadoek, uholdeek, suteek, lurrikarek edo kanpoko beste arrazoik batzuek; (b) zabarkeria; (c) erabilera komertziala; (d) produktuaren edozein parteri eragindako aldaketak; (e) Xiaomirenak ez diren produktuekin egindako kalteak; (f) istripuen, gehiegikerien edo erabilera desegokiaren ondorioz sortutako kalteak; (g) produktua Xiaomi baimendu edo aurreikusitako erabileretarako ez bestetarako erabiltzeak eragindako kalteak edo tentsio edo elikatze-iturri desegokiak erabiltzeak eragindakoak; (h) Xiaomirenak ez diren zerbitzuek eragindako kalteak (eguneratzeak eta hedapenak eragindakoak barne); (i) jarraitibideei kasurik ez egiteak eragindakoak. Berme mugatuak ez ditu bere gain hartzen erabiltzailearen datuak berreskuratzea eta software-programak berriz instalatzea. Xiaomiko birsaltzaile, ordezkari edo enplegatuek ez dute baimenik berme mugatu honetan aldaketak, luzapenak edo gehikuntzak egiteko. Termino hauetako bat legez kontrakoa edo aplikaezina bada, horrek ez du esan nahi gainerako terminoen legezkotasuna edo aplikagarritasuna baliozkoak ez diren.

Legeak debekatzen duenean edo Xiaomik kontrakoa agintzen duenean izan ezik, saldu osteko zerbitzua jatorrizko erosketa-herrialdera mugatuko da.

Berme honek ez ditu barne hartzen behar bezala inportatu ez ziren produktuak, Xiaomi behar bezala fabrikatu ez zituenak, Xiaomin erosi ez zirenak edo Xiaomiko saltzaile ofizial bati erosi ez zitzaizkionak. Legedia aplikagarriaren arabera, produktua saldu zuen txikizkari ez-ofizialaren bermeez baliatu daitezke. Beraz, produktua erosi zion txikizkariarekin harremanetan jartzeko aholkatzen dio Xiaomi.

Berme hauek ez dira aplikatzen Hong Kongen eta Taiwanen.

BERME INPLIZITUAK

Legedia aplikagarriak kontraktorik esaten ez badu, berme inplizitu guztiak (helburu jakin baterako merkaturatze- eta egokitze-bermeak barne) berme mugatu honen iraupenera mugatuko dira. Zenbait jurisdikzioek ez dute uzten berme inplizitu baten iraupena mugatzen; beraz, kasu horietan ez da aplikatuko aurretik esandakoa.

KALTEAK MUGATZEA

Legedia aplikagarriak kontraktorik esaten ez badu, Xiaomi ez da izango ustekabeko, zeharkako, berariazko edo ondoriozko kalteen erantzulea, besteak beste, irabaziak, diru-sarrerak edo datuak galtzearena, berme esplizitua edo inplizitua edo baldintzak ez betetzeagatik eragindako kalteena, edo beste edozein teoria legalen eraginpekoa, baita Xiaomiri kalte horien berri eman zaionean ere. Zenbait jurisdikzioek ez dituzte salbuespenak onartzen, ez eta kalte berezi, zeharkako, ustekabeko edo kontsekuenteen mugak ere; kasu horietan, aurreko salbuespena ez da aplikatuko.

Harremanetarako bideei buruzko informazioa

Informazio gehiago izateko, ikusi <https://www.mi.com/global/service/warranty/>

Saldu osteko zerbitzuko harremanetarako pertsona Xiaomiko zerbitzu-sare baimenduko edozein pertsona, Xiaomiko banatzaile baimenduak edo produktua saldu zuen azken saltzailea izan daiteke. Zalantzarik baduzu, jarri harremanetan Xiaomirekin identifikatu dezakezun pertsona batekin.